

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-4132 errepedea hobetzeko eta Olabide ikastolara iristeko espaloia eta bidegorria eraikitzeo proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2022ko martxoaren 22an egindako bilkuran, 167/2022 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“A-4132 errepedea hobetzeko eta Olabide ikastolara heltzeko espaloia eta bidegorria egiteko eraikuntza proiektua” jendurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presazko okupazioa deklaratzeko. Kreditua atxikitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 30eko 731/2021 Erabakiaren bidez, honako hauek onetsi ziren: “A-4132 errepedea hobetzeko eta Olabide ikastolara heltzeko espaloia eta bidegorria egiteko eraikuntza proiektua” eta proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideak banan-banan jasotzen dituen hasierako zerrenda zehatza; jendurrean jartzeko nahitaezko izapidea betetzea, eta Gasteizko Udalarekiko lankidetzeta hitzarmena, proiektu horretako obrak egin eta finantzatzeko.

Jendurrean egon den aldian, alegazio idazki bat aurkeztu da desjabetze espedienteko 9 finkari buruz, eta Errepide Zerbitzuak txostena egin ondoren, Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onetsi eta Foru Gobernu Kontseiluak bere egin du. Horixe da erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileari igorriko zaio, aurkeztutako alegazioa baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Gasteizko 3 eta 5 zenbakiko jabetza erregistroek administrazio desjabetzaile honek eskatuta egindako jabari eta kargen ziurtagiriak jaso ondoren, onespina eman behar zaio proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina eragindako finken jabari eta kargen ziurtagiriak kontuan hartuta egin baita.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratu behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakotzat jo behar dela. Horiek horrela, Errepide Zerbitzuak adierazi du A-4132 errepedea A-3102 errepedearekin batzen den elkarguneko biribilgunean hasten dela (3,20 kilometro puntuan) eta Lasarteko herrigunean bukatzen dela (3,73 kilometro puntuan), eta, beraz, 530 metroko luzera du.

Errepidearen hasierako tartean, biribilgunetik hasi eta lehenengo 200 metroetan, Olabide ikastolako sarbidea dago, eta leku horren egungo antolamendua ez da egokia. Egunero hainbat ibilgailu, oinezko eta txirrindulari igarotzen dira bertatik, zeinak ikastetxe horretara joaten diren gurasoak eta umeak izaten baitira nagusiki. Zati horretan errepedea estua izateaz gain, ez dago oinezkoak eta txirrindulariak (egunero ikastolara joaten diren umeak) eta errepide hori erabiltzen duten motordun ibilgailu gurpildunak banatzeko elementurik; izan ere, ez dago oinezkoentzako espaloirik eta bidegorria eten egiten da A-4132 errepedea hasten den lekuan dagoen biribilgunera iritsi aurretik. Horregatik guztiagatik, maiz gorabeherak izaten dira eta erabiltzaileen segurtasuna arriskuan egoten da, bereziki, oinez eta bizikletan ikastolara joaten diren umeena.

Segurtasuna arriskuan jartzen duen arazo hori askotan salatu dute ikastetxeko kudeatzaileek eta guraso elkarteak, eta arazoa konpontzeko eskaria egin dute.

A-4132 errepideko erabiltzaileen eta, bereziki, errepide horretatik Olabide Ikastolara joaten diren oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna hobetzeko, "A-4132 errepidea hobetzeko eta Olabide ikastolara heltzeko espaloia eta bidegorria egiteko eraikuntza proiektua" idatzi da.

Proiektu horretan jasota dago A-4132 errepideko tarte horretako bide segurtasuna hobetzeko irtenbidea, eta Gasteizko hego-mendebaldean, hirigunetik kilometro batera, kokatutako Olabide ikastolara bizikletan eta oinez joateko bidea egokitzean datza.

Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren interesak biltzen dituen proiektua izanik, azaroaren 30eko 731/2021 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, onetsi zen sinatzea "Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena, A-4132 errepidea hobetzeko eta Olabide Ikastolara joateko espaloia eta bidegorria eraikitzeako proiektuko obrak gauzatzeko eta finantzatzeko"; hitzarmenaren baldintzak eta alderdi bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak adostuta. Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen konpromisoen artean dago proiektua onestea, bai eta proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubi-deen desjabetzeen izapidetze tekniko eta administratiboa egitea ere. Horregatik, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 30eko 731/2021 Erabakiaren bidez, honako hauek onetsi ziren: "A-4132 errepidea hobetzeko eta Olabide ikastolara heltzeko espaloia eta bidegorria egiteko eraikuntza proiektua"; proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubi-deak banan-banan jasotzen dituen hasierako zerranda zehatza eta jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea betetzea.

Gaur egun ikastolara bizikletaz joaten direnek udaleko bi bidegorri erabiltzen dituzte. Lehenengo Malizhaeza kaletik jaisten da, mendebaldetik, eta, bestea, iparraldetik gerturatzen da Lasarteko Atea kaletik; azken hori da sarbide nagusia eta horixe hobetu nahi da.

Malizhaeza kalea eta A-3102 (Lasarteko Atea kalea, Berroztegieta eta Gasteiz lotzen dituen) eta A-4132 (Lasarte herriko sarbidea) errepideak biribilgune batean lotzen dira, eta biribilgune hori ikastolatik gertu dagoenez, ikastetxeko sarbide nagusietako bat da, eta puntako orduetan ibilgailu eta pertsona ugari ibiltzen dira inguru horretan.

Proiektu honetan jasotako jarduketek zehazten dute zeintzuk diren A-4132 errepidea (aipatutako biribilgunearen arteko zatia, hau da, Olabide ikastolarako egungo sarbidea pasatu ondoren) eta haren ertzetako urbanizazioa hobetzeko egin beharreko lanak. Horretarako, bidegorri bat eta espaloiak eraikiko dira, errepidearen erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, eta, bereziki, oinezkoen eta txirrindularien trafikoarena, handia baita. Trafiko hori iparraldetik hurbiltzen da Lasarteko Ateatik eta ondoren biribilgunea eta Lasartera joateko A-4132 errepidearen bidegurutzea pasatzen ditu ikastolara joateko, edo, beste erabiltzaile batzuek errepide hori gurutzatzen dute.

Horretarako, obrak egingo dira A-4132 errepidearen 267 metroko zati batean, zehazki, biribilgunetik (A-3102 errepidearekiko elkargunean) ikastolaren instalazioak pasatu arte. Honako hauek eraikiko dira: 6,00 metroko galtzada bat (2 x 3,00 metro), 0,50 metroko alboko bazterbideak (gainaldeko urak biltzeko zurrustak barne) eta bi espaloi goratu alboetan (iparraldekoak 6,50 metroko zabalera izango du –horren barruan dago 2,50 metroko zabalera bidegorria– eta hegoaldekoak zabalera ezberdina izango du ikastolako instalazioak bukatu arte: 9,00 metrokoa ikastolako sarreraraino –horren barruan dago bidegorria– eta 14,00 metrokoa errepidearen mugaren eta itxituraren artean). Gainera, garai batean autobusak aparkatzeko erabiltzen zen eta gaur egun A-3102 errepidearen ondoko beste kokaleku batean dagoen espazioa oinezkoentzako gune bihurtuko da; izan ere, aparkaleku zaharraren zerranda horrek ez du jada lehen zuen egitekoea, eta, beraz, nagusiki oinezkoek erabiltzeko egokitu daiteke.

Irtenbide horrekin, Lasarteko Atea kaletik jaisten den bidegorriari jarraipena emango zaio (gaur egun biribilgunean bukatzen da), eta espaloia eraikiko da, zeinak ekialderantz biratuko baitu A 4132 errepidearen iparraldetik ikastolaren sarrerara iritsi arte. Leku horretan oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasabidea jarriko da, beharrezko seinaleak jarriko dira eta biribilguneak ikusgarritasun hobea izango du. Horrez gain, errepidetik hurbiltzen diren ibilgailuek abiadura moteldu beharko dute.

Halaber, errepidearen drainatze longitudinala hobetzeko, guztiz berrituko da, eta argiteria publikoko sarea ere berrituko da. Horretarako, beharrezko kanalizazioak jarriko dira eta gutxieneko energia eraginkortasunaren balioak betetzen dituzten argiteria zutabeak instalatuko dira.

Proiektua osatzeko seinaleztapen horizontala eta bertikala jarriko da, bai eta beharrezko balizak ere, eta obrek hartzen dituzten ezponden eta eremuen ingurumena lehengoratzeko lanak gauzatuko dira.

Proiektuari dagozkion obrak eginda, motordun ibilgailu gurpildunak A-4132 errepidean ibiltzeko baldintzak hobetuko dira; Olabide ikastolako sarbidea antolatuko da ibilgailu, oinezko eta txirrindularientzat; A-4132 errepidean ibiltzen diren oinezko eta txirrindularien zirkulazioa eta ibilgailuena behar bezala bereziko dira, eta bide zati horrek gaur egun dituen eta erabiltzaileen segurtasuna, batez ere ikastolara oinez edo txirringaz joaten diren eta bereziki zaurgarriak diren umeena, arriskuan jartzen duten arazoak konpontzea lortuko da.

Premiazkotzat jotzeko izapiderako, Foru Gobernu Kontseiluak foru erabakia hartu behar du, bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoarekin, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin ere.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, Autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7. eta 8. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, hala xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. "A-4132 errepidea hobetzeko eta Olabide ikastolara heltzeko espaloia eta bidegorria egiteko eraikuntza proiektua" jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea eta Errepide Zerbitzuak egindako txostenaren arabera baiestea edo ezestea.

Bigarrena. Onestea "A-4132 errepidea hobetzeko eta Olabide ikastolara heltzeko espaloia eta bidegorria egiteko eraikuntza proiektua"ren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina eranskinean baitago.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratzeko, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Deklaratzeko honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta desjabetze espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 33.908,33 euro esleitzea eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2022rako aurrekontuaren "Olabide ikastolako sarbideko desjabetzeak" izeneko 50106. G/453501/60000503 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-1027/000.22.1.22).

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta zorpekin erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruaren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, honekin batera doan zerrendan agertzen diren titularrei dei egiten zaie Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren bulegoetan –Lege Eta Administrazio Zerbitzua, Desjabetze Atala– ager daitezen, bertan agertzen diren egun eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 29a

Jarduneko Bide Azpiegituren zuzendaria
E. D. PATRICIA PÉREZ AGUIRRE

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

A-4132 ERREPIDEA HOBETZEKO ETA OLABIDE IKASTOLARA IRISTEKO ESPALOA ETA BIDEGORRIA ERAIKITZEKO PROIEKTUA.
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE MEJORA DE LA CARRETERA A-4132 Y CONSTRUCCIÓN DE ACERA Y BIDEGORRI PARA ACCESO A LA IKASTOLA OLABIDE

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK			UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURZATIA	PARCELA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m ²	SERVIDUMBRE 3m	DÍA	HORA		
1/000	HROS. DE J. MARIA OCHOA DE CHINCHETRU OÑATE JUAN RAMON OCHOA DE CHINCHETRU AZPETA M. IBERNALO OCHOA DE CHINCHETRU AZPETA M. JOSE OCHOA DE CHINCHETRU AZPETA M. LOURDES OCHOA DE CHINCHETRU AZPETA J. IGNACIO OCHOA DE CHINCHETRU AZPETA MIREN ITZIAR OCHOA DE CHINCHETRU MAGUREGI M. ROSARIO OCHOA DE CHINCHETRU AZPETA F. JAVIER INIGO OCHOA DE CHINCHETRU MARIA ASUNCION OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI MIREN EDURNE OCHOA DE CHINCHETRU SOLAGUREN ROSSA MARIA OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI MIREN GURUTZE OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI M. JESUS OCHOA DE CHINCHETRU SOLAGUREN HROS. DE MIREN ELISABETE OCHOA DE CHINCHETRU SOLAGUREN J. IGNACIO OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI JUAN IGNACIO JOSE ARRIETA OCHOA DE CHINCHETRU MARIA BEGONA ARRIETA OCHOA DE CHINCHETRU J. RAMON ARRIETA OCHOA DE CHINCHETRU BEATRIZ PRECIADO MARTINEZ MIREN ZURINE VIGALONDO OCHOA DE CHINCHETRU F. JAVIER VIGALONDO OCHOA DE CHINCHETRU JOSEBA ANDONI VIGALONDO OCHOA DE CHINCHETRU JOSEBA INAKI INIGO OCHOA DE CHINCHETRU MARIA INMAQUILADA OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI MIREN EDURNE OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI J. ANGEL OCHOA DE CHINCHETRU OTAEGUI MIREN BEGONA INIGO OCHOA DE CHINCHETRU HROS. DE MIREN KARMELE MARTINEZ OCHOA DE CHINCHETRU MARIA TERESA MARTINEZ OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL AIDON IINGO OCHOA DE CHINCHETRU MIREN GURUTZE OCHOA DE CHINCHETRU JOSEBA VIGALONDO DIAZ AUTOR VIGALONDO DIAZ	13	314	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	58		3/5/22	10:00	

Esp./Expte. 2021/4

FINKAREN ZK.	Nº FINCA	TITULARREN IZENA	KATASTROKO DATUAK			UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m ²			EGUNA	ORDUA		
			POLIGONO	LURZATIA	PARCELA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA 3m			SUPERFICIE AFEKTADA m ²	SERVIDUMBRE 3m
NOMBRE DEL TITULAR			TERMINO MUNICIPAL			APROVECHAMIENTO			DIA					
2/000		M. INMACULADA DE YRIZAR OLARTE PEDRO RAMON DE YRIZAR VELASCO ELENA DE YRIZAR OLARTE HIDROS. DE ELENA DE YRIZAR VELASCO M. CARMEN GARCIA VALDES DE YRIZAR ALFREDO GARCIA VALDES DE YRIZAR MIRIAM VILLANUEVA GALOBBART IGNACIO YRIZAR MOVILLA M. PILAR YRIZAR MOVILLA J. MARIA YRIZAR MOVILLA INGO DE YRIZAR VELASCO M. PILAR GARCIA VALDES DE YRIZAR IGNACIO YRIZAR CUADRA LAURA YRIZAR CUADRA MARTA YRIZAR CUADRA	13	189	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	409	306	Aireko linea telegrafikoa/3m Telegrato aerea/3m 132	3/5/22	10:45			
3/000		ASUNCIÓN SAIZ REDYO	13	315	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO		21		3/5/22	12:00			
4/000		COOP. DE ENSEMANZA PAIRE RAIMUNDO DE OLABIDE	13	318	VITORIA-GASTEIZ	APARCADERIA / APARCAMIENTO	1.240			3/5/22	12:45			
5/000		J. MARIA DIAZ DE ARGOTE OCHOA	13	188	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	208	148	Aireko linea telegrafikoa/3m Telegrato aerea/3m 73	3/5/22	13:30			
7/000		BLANCA ESTHER DIEZ DE URE RUIZ DE ESQUIDE ANA ROSA DIEZ DE URE RUIZ DE ESQUIDE LUIS CARLOS DIEZ DE URE RUIZ DE ESQUIDE	11	88	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	198	44	Aireko linea elektrikoa/16m Electricita aerea/16m 217	4/5/22	10:00			
12/000		BLANCA ESTHER DIEZ DE URE RUIZ DE ESQUIDE ANA ROSA DIEZ DE URE RUIZ DE ESQUIDE LUIS CARLOS DIEZ DE URE RUIZ DE ESQUIDE	11	475	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO		127	Aireko linea elektrikoa/16m Electricita aerea/16m 286	4/5/22	10:00			
8/000		M.PAZ FERNANDEZ FERNANDEZ DE TROCONIZ	11	87	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	242			4/5/22	10:45			
9/000		M.PAZ FERNANDEZ FERNANDEZ DE TROCONIZ	11	86	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	219	42	Aireko linea telegrafikoa/3m Telegrato aerea/3m 17	4/5/22	10:45			
10/000		MELENA GIL CAMARA J.MIGUEL GIL CAMARA MILUISA GIL CAMARA JORGE GIL MORENO SONIA GIL MORENO	11	89	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	80		Aireko linea elektrikoa/16m Electricita aerea/16m 55	4/5/22	12:00			
11/000		M.LUZ SAENZ DE OLAMENDI SAENZ	11	90	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	25			4/5/22	12:45			
6/000		OBISPADO DE VITORIA	13	187	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO	760			4/5/22	13:30			